

# Itzultzaileek ez dute dena euskaratu nahi

Hizkuntza-koofizialtasunak lanez gainezka ditu EAeko administrazioan dabilzan itzultzaileak. Kasu gehienetan erdararen gotorleku den horretan, haiek arduratzen dira gaztelaniaz sortutakoa euskaratzeaz, azken produktuak behintzat legea bete dezan. Baina kexu dira: askotan alferrikakoa da euren lana, inork irekiko ez dituen tiraderak betetzeko baino ez du balio eta.

UNAI BREA

Argakia: Dani Blanco

**ADMINISTRAZIO** publikoetako itzultzaileak ez daude lan faltan Euskal Autonomia Erkidegoan. Testu asko eraman behar da gaztelaniatik euskarara, eta inoiz, oso gutxitan, euskaraz sortutakoa itzuli behar da gaztelaniera. Lan izugarria, sarritan behar adina fruitu ematen ez duena. EAEn diharduten itzultzaileen artean guztiz zabaldua dago kezka: euskaratzen dutenaren zati handiegia alferrik euskaratzen dute.

Euskararen aldekoak ari dira eskatzen gutxiago euskaratzeko. Tiraka bloga Eusko Jaurlaritzan lan egiten duten hainbat euskaltzalek sortu

zuten; bertan pixka bat ibilita, gaiari buruzko hausnarketa bat baino gehiago ikus daiteke. Denak ildo beretik: gauza gehiegi itzultzen dira. Blogaren sortzaileetako batek, Martin Rezolak, uste du gogoeta egin beharko litzatekeela, zer euskaratu behar den eta zer ez finkatze aldera. “Orain ia dena itzultzen da, ohituraz”, diosku.

Duela hilabete batzuk, Edorta España itzultzaileak antzeko kezka plazaratu zituen, *Administrazioa euskaraz* aldizkarian argitaratutako artikulu mardulean. Españak Uribe Kostako Mankomunitatean egiten du lan, Bizkaian, eta berak eta beste lankide

batek dute zazpi udalerrik sortutako testuak itzultzeko ardura, ia beti gaztelaniatik euskarara. Betebehar esker-ga, inondik ere. Azken legealdian, gainera, handitu egin da, lehen bidaltzen ez zizkieten zenbait agiri mota jasotzen baitituzte orain. Ez da harritzekoa, hortaz, zeregin horren zati bat kanpoko enpresa bati bideratu behar izatea. Eta hala ere atzerapen handiz entregatzen dituzte lanak, guztira iritsi ezinik. EAEn baliabide asko xahutzen da administrazioko testuak itzultzen, Españak gogorazten duenez; “askotan alferrik, gero ez duelako inork irakurtzen”.

Itzultzaile askok salatzen dute euskaratutako testuen zati handi bat betiko geratzen dela artxibategietan gordeta, inork erabili gabe.



## Euskara argiaren bidean

Duela hamar urte inguru, HAEEk euskara argiaren aldeko apustua egin zuen. Horren ondorioz, gaur egun administrazioek argitaratzen dituzten euskarazko testuak ulergarriagoak dira ordukoak baino. Baina ez askoz ulergarriagoak, Edorta Españaren ustetan. Errua itzultzailearen trebezia falta izan daiteke batzuetan; beste askotan, gaztelaniazko jatorrizkoaren mordoiloakerian bilatu behar da arrazoa, euskarazkoa igarotzen baita. Zortzi lerrotan hiru koma besterik ez dituen esaldia gaztelaniaz ulergaitza bada, hagitzez ulergaitzagoa izango da euskaraz. Gehitu egiozu dozena erdi hitz tekniko, eta hor duzu *antilingua*.

Itzultzaileek, gero eta gehiago, irizpide horiek dituzte gogoan, eta denak bat datoz aurrera egin dela, baina Españaren esanetan asko dago oraindik egiteko. "Orain dela hamar 8-10 urte HAEEk bide hori zabaldu zuenean, prestakuntza ikastaroak egin ziren hainbat administrazioetan, euskara garbiaren beharra denon ahotan zegoen... Baina iruditzen zait hasierako ahalegin handi hura apur bat motelduta dela. Gauza bat da irizpide sorta bat jasotzea liburu batean, eta beste bat hori nola gizareratu den, ea benetan itzultzaileengana zein gainerako langileengana ondo iritsi den".

Rezolak bezala, ea dena itzuli behar ote den hausnartzeko eskatzen du Españak. Beste irizpiderik ezean, administrazioeko langileen barne-konsumorako agiri, txosten eta abarrak gaztelania hutsez uztearen aldekoa da, baldin eta erabiliko duten guztiak erdaldun elebakarrak badira. Besterik da herritarren eskura jartzen dena: arauak, ordenantzak...

### Elebakartasunaren alde

Harago doa Martin Rezola, Tiraka blogean idatzitako gogoeta honetan antzeman daitekeenez: "Itzulpenkopurua murrizteko eskariari halako eskubide-printzipio ukiezin bat kontrajarri ohi zaio: euskaldunok eskubidea dugula hainbat eta hainbat informazio eta dokumentu euskaraz ere izateko. Eta hortik beldurra. Nik, alabaina, beldur horren funtsa zalantzan jarri nahi nuke". Besteak beste, euskaraz inork irakurriko ez duena gaztelania hutsean utzita, gordinago ikusiko da zein den euskararen egoera, eta agian baten bat suspertu egingo da. Bestalde, agiriaren elebakartasuna ez litzateke gaztelaniaren mesede hutserako izan behar: euskaraz testu gehiago sortzearen aldekoa da Rezola. Eta gaztelaniara ez itzuli.

Ildo beretik mintzo da, beste artikuluko batean, Malores Etxeberria Hernaniko Udaleko euskara teknikaria. Dioenez, administrazioan ustez dagoen elebitasuna azal hutsezkoa da. Praktikan, gaztelaniaz lan egiten da gehienbat, eta amaieran euskarazko ukitua ematen zaio produzituta koari, euskarazko itzulpena jarriz erdal jatorrizkoaren aldamenen. Orobat, elebitasunaren aurkako irizpide oso zabaldua daude administrazioeko langile euskaldunengan. Elebitasuna modu horretan ulertuta, beti ere.

### Irizpide finkorik ez Euskararen Legean

Euskararen Legeak ez du zehazten zer itzuli behar den eta zer ez, eta ez dio den-dena elebidun izan behar denik ere, Eneko Oregik, Herri Ardularitzako Euskal Erakundeko (HAEE) Itzulpen Zerbitzu Ofizialetako buruak adierazi digunez. "Legeak esaten du herritarren eskubideak bermatu behar direla, eta hori betetzeko gauza asko itzuli behar dira".

EAEko administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko laugarren plangintzaldia ezartzeaz da, eta hark gehiago itzuli beharra ekarriko

du, Oregiren esanetan, baina orain baino gehiago itzuliko da euskaratik gaztelaniara. "Egin dira aurrerapausoak horretan hala ere, oraindik euskarazko produkzioa apala den arren", azpimarratu nahi izan du.

Erabilpena sustatzea, hori da gakoa Oregiren ustez. Zerbait aurreratu dela dio, baina funtzionario asko euskaraz aritzeko trebatu izanak ez du erabilpena areagotu. Horrek "malenkonia" halakoa eragin die administrazioeko langile askori, egin dako lanak emaitzarik ez duela ikusi dutenean. Funtzionarioek euskaraz lan egin ahal izateko ahalegin asko egin behar da oraindik, aitortzen du Oregik, eta zeregin horretan funtsezkoa izango da itzultzaileen parte hartzea; ez itzultzaile modura, trebatzaile modura baizik.

Horixe aldarrikatzen du, hain zuzen, Edorta Españak: "Itzulpenkopurua murriztu eta ordu gehiago eskaini beharko genioke langileekin egoteari". Bide luzea da baina. Españak salatzen duenez, langile batzuek hizkuntza-perfila lortu eta hortxe amaitzen dute euskaraz jarduteko trebakuntza; praktikan ez dira gauza euskaraz ezer ekoizteko. Beste batzuek berriz, ezta perfila lortu ere. ■

